ALKATETZAREN DEKRETOA

Herriaren onerako irabazasmo bariko Elkarteen Erregistroa.

Arrazoiak:

Udal honek, herrian diru irabazi asmorik ez duten Elkarteei hainbat laguntza eman izan die. Gainera, elkarte horiek udalarekin elkarlean jardun izan dute herrian egindako gauzetan.

Elkarte horiekin udalak dituen harremanak kontuan hartuz gero, merezi dute herriaren onerako elkartetzat hartzea. Asmoa eta nahia hori izan arren, egoera horren aitorpen formalik ez da inon agertzen; ezta elkarte guztien eta bakoitzaren ezaguera egiatirik ere.

Beste alde batetik, urriaren 28ko 6/1997 Foru Araua onartu egin denez horrek apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Arauemailea aldatu egin du, Iharduera Zergaren idatzi bateratua onartu zuen idaztia. Foru Arau horretan aipaturiko alde on horietaz baliatu ahal izateko derrigorrezkoa da HERRIAREN ONERAKO ELKARTEAren izendapena ematea.

DECRETO DE ALCALDIA

Registro de Asociaciones sin Animo de lucro de interés municipal.

Exposición de motivos:

Este Ayuntamiento ha venido concediendo diversas clases de ayudas a Asociaciones sin Animo de Lucro que operan en el municipio. Las mismas además han colaborado con el Ayuntamiento en su actividad municipal.

Las relaciones mantenidas con las mencionadas Asociaciones las hacen acreedoras de ser consideradas como de interés municipal. No existe sin embargo un reconocimiento formal de tal condición ni un conocimiento fehaciente de todas y cada una de esta Asociaciones.

Por otra parte se ha aprobado la Norma Foral 6/1997 de 28 de octubre por la que se modifica el Decreto Foral Normativo de 1/1993 de 20 de abril por el que se aprueba el Texto Refundido del Impuesto sobre Actividades. La aplicación de los beneficios recogidos en la mencionada Norma Foral exige la declaración expresa de Asociación de Interés Municipal.

Eibarren egon daitezkeen HERRIARE ONERAKO ELKARTEei buruzko tresna adierazgarria eta informatiboa eduki ahal izateko sortu da HERRIAREN ONERAKO ELKARTEEN ERREGISTROA, dirua irabazteko helbururik ez dutenena. Hona hemen Erregistro horrek izango dituen arauak:

A fin de disponer de un instrumento declarativo e informativo de las Asociaciones de Interés Municipal que pueden existir en la localidad se crea el REGISTRO DE ASOCIACIONES SIN ANIMO DE LUCRO DE INTERÉS MUNICIPAL, que se regulara conforme a lo siguiente:

AURRENA: Herriaren Onerako irabazasmo bariko Elkarteen Erregistroa sortu da, dirua irabazteko helbururik ez duten elkarteena alegia. Erregistro horretan eranskinean datozen datuak jasoko dira.

PRIMERO: Se crea el Registro de Asociaciones Sin Animo de Lucro de Interés Municipal, en el cual se inscribirán los datos que se recogen en el Anexo.

BIGARRENA: Erregistroan sartzeko eskaera egin dezaketen Elkarteak ondoko hauek dira:

SEGUNDO: Podrán solicitar la inscripción en el Registro:

Irabazasmorik izan ez eta Eusko Jaurlaritzako Justizia, Ekonomia eta Gizarte Segurantzak duen Elkarteen Erregistroan behar den moduan azaltzen diren Elkarteak, Eibarko herrian gauzak egiten laguntzen dutenak.

Asociaciones sin ánimo de lucro debidamente inscritas en el Registro de Asociaciones del Departamento de Justicia, Economía y Seguridad Social del Gobierno Vasco que presten actividades de colaboración en el municipio.

HIRUGARRENA: Erregistro horretan egon nahi duten elkarteak, Udal honetako Erregistrora etorri behar dira eta ondoko agiri hauek ekarri:

TERCERO: Las Asociaciones interesadas en su inscripción deberán presentar solicitud para la misma en el Registro General del Ayuntamiento acompañando la siguiente documentación:

- Elkartearen Estatutuak

- Eusko Jaurlaritzako Justizia, Ekonomia eta Gizarte Segurantza Sailak duen Elkarteen Erregistroan duten inskripzio-agiriaren frogagiria, eguneratua. (Eusko Jaurlaritzako Justizia, Ekonomia eta Gizarte Segurantza Saileko Elkarteen Erregistrorako Gipuzkoako Ordezkaritza Donostian dago, Andia kaleko 13-5ean).

- Zuzendaritzan dauden kargudunen izen-abizenak.

- Elkartearen egoitza.

- Azken hiru urteotan udalarekin elkarlanean egindako lanak edo iharduerak aipatuko dituen txostena.

- Diru Iharduera Zergan Elkarteari dagokion epigrafearen altaren frogagiria.

Udalak, urte honetako asmoak eta aurrekontuak eska ditzake.

Udal honetako zerbitzu teknikoek, elkarte bakoitzak aurkeztu duen Txostenean aipa-

- Estatutos de la Asociación.

- Justificante actualizado de inscripción en el Registro de Asociaciones del Departamento de Justicia, Economía y Seguridad Social del Gobierno Vasco (La Delgación en Gipuzkoa del Registro de Asociaciones del Departamento de Justicia, Economía y Seguridad Social del Gobierno Vasco está sita en C/ Andia, 13-5º).

- Nombre de las personas que ocupan los cargos directivos.

- Domicilio Social.

- Memoria en la que se relacionen las actividades en colaboración con el Ayuntamiento en los últimos tres años.

- Justificante de Alta en el epígrafe correspondiente del Impuesto sobre Actividades Económicas.

Podrán asimismo solicitarse programa de actividades y presupuesto del año en curso.

Por los servicios municipales correspondientes se emitirá informe sobre el al-

tu dituen gauza guztien gainean txostena egingo dute, emaitzak eta elkarte bakoitzaren irispidea norainokoak diren azalduz; eta, amaitzeko, delako Elkartea Herriaren Onerako Elkarteen Erregistroan sartzeko proposamena edo ez sartzekoa islatuko da eta ondoren Gobernu Batzordeari igorriko.

LAUGARRENA: Herriaren Onerako Elkarteen Erregistroan sartu izateak Herriaren Onerako Elkartetzat hartzea esan gura nahi du.

BOSTGARRENA: Erregistroaren ardura Idazkari Nagusiarena da. Idazkaritza izango da Erregistroan sartzeko eskaeren ardura hartuko duena.

SEIGARRENA: Udalak aukera izango du Erregistroan dagoen Elkartea hortik kanporatzeko herriarekiko elkarlanaren kontrako jokabidea eraman duela uste badu. Erregistrotik kanpora botatzeko arrazoiak eman behar dira eta horretarako irekitako espedientean entzunaldia izango da.

ZAZPIGARRENA: Erregistroa izena emana duen Elkartearen kargu geratzen da sartzerakoan emandako datuen aldaketen berri ematea edo jakinaraztea.

cance y resultados de las actividades descritos en la Memoria presentada y se efectuará propuesta de inscripción o no en el Registro Municipal de Asociaciones Sin Animo de Lucro, objeto de esta normativa, la cual será aprobada por Comisión de Gobierno.

CUARTO: La inscripción en el Registro de Asociaciones Sin Animo de Lucro de Interés Municipal implica la declaración de Asociación de Interés Municipal.

QUINTO: El Registro estará a cargo de la Secretaria General cuyo Departamento se responsabilizará de las solicitudes de inscripción.

SEXTO: Se podrá proceder a la anulación de la inscripción en el Registro por actuaciones que se consideren contrarias a la colaboración para con el Municipio. Dicha anulación deberá ser motivada y el expediente abierto a tal efecto se concederá trámite de audiencia.

SÉPTIMO: Será responsabilidad de la Asociación inscrita el notificar cualquier modificación experimentada en los elementos objeto de inscripción.

ZORTZIGARRENA: Erregistroan dauden Elkarteek urriaren 28ko 6/1997 Foru Arauak aipaturiko onura fiskalak izango dituzte (Arau horrek apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Arauemailea aldatu egin du, Iharduera Zergaren idatzi bateratua onartu zuen idaztia) eta hemendik aurrera kalera daitezkeen beste onura guztiak ere, baldin eta kasu bakoitzean arau horiek eskatutako betebehar guztiak bete egiten baditu.

Elkarteek, horiez gain, zergatzepekoak ez diren beste onura mota batzuk ere jaso ditzakete udalak hala erabakiz gero.

BEDERATZIGARRENA: Elkarteek, urriaren 28ko 6/1997 Foru Arauaren Azken Xedapenak 1997. urterako jaso dituen atzera eraginaren ondorioez balia daitezen, epe berezi bat zabalduko da Erregistroan sartu eta Foru Arau horrek damaizkien zerga-onurak jaso ahal izateko, beti ere, Erregistroan sartzeko baiezkoa emango balitz. Hona hemen epea: 98-1-4.

Ezarri den epe berezi horretaz aparte, Elkarteek, Herriaren Onerako irabazasmo bariko Elkarteen Erregistroan sartzeko es-

OCTAVO: Las Asociaciones inscritas gozarán de los beneficios fiscales recogidos en la Norma Foral 6/1997, de 28 de octubre, por la que se modifica el Decreto Foral Normativo 1/1993, de 20 de abril, por el que se aprueba el Texto Refundido del Impuesto sobre Actividades Económicas y los demás que puedan dictarse, siempre y cuando se cumplan en cada caso los requisitos exigidos en dicha normativa.

Asimismo las Asociaciones gozarán de otros beneficios de contenido no tributario que pudiera disponer el Ayuntamiento.

NOVENO: A los efectos de que las Asociaciones interesadas puedan acogerse a los efectos retroactivos que para el período impositivo de 1997 se recogen en la Disposición Final de la Norma Foral 6/1997 de 28 de octubre, se abre un plazo especial para solicitar la inscripción en el Registro así como los beneficios tributarios de dicha Norma Foral caso de aprobarse positivamente la inscripción, de hasta el 4-1-98.

Con independencia de dicho plazo especial, en cualquier momento las Asociaciones interesadas podrán solicitar la

kabidea edozein momentutan egin dezakete.

inscripción en el Registro de Asociaciones sin Animo de Lucro de Interés Municipal.

Eibarren emana, mila bederatzirehun eta laurogei eta hamazazpiko abenduaren bian.

Dado en Eibar a dos de diciembre de mil novecientos noventa y siete.

ALKATEAK,

EL ALCALDE,